

Araudia
eta
hezkuntza
edukiak

Araudia eta hezkuntza edukiak



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

TITULUA: Araudia eta hezkuntza edukiak

EGILEA: Hezkuntza Departamentua
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua
1. argitaraldia, 1. inprimaldia (2007)

DISEINU GRAFIKOA: Carlos Álvarez, www.estudiooberon.com

INPRIMAKETA: Gráficas xxxxx

D.L.: x

BULTZATZAILEA ETA BANATZAILEA: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondona
Navas de Tolosa kalea, 21. 31002 IRUÑA

TELEFONOA: 848 427 121

FAXA: 848 427 123

fondo.publicaciones@cnavarra.es

www.cnavarra.es/publicaciones

Aurkezpena

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak lege esparru berria ezarri duelarik, Haur Hezkuntza bere buruzko hezkuntza etapa da esparru horretan, sortzetik sei urtetarainoko haurrak hezteko. Bi ziklotan antolatua dago: lehenak hiru urtetaraino hartzen du eta bigarrenak hirutatik sei urtetaraino.

LOEk ezarri duenez, ikastetxeek proposamen pedagogiko batean bilduko dute ziklo bateko nahiz besteko hezkuntza izaera. Hezkuntza Administrazioei dagokie Hezkuntza edukiak ezartzea eta etapa honetako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek zein baldintza bete behar dituzten finkatzea. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua onetsi du, Haur Hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntzak garatu eta Nafarroako Foru Komunitatean ikastetxeak sortu eta baimentzeko prozedura finkatzeko.

Foru Dekretu hau argitaratzearekin hasiera ematen zaio 0-3 urte bitarteko bildumari, ikastetxeek izan dezaten orientazioa non aurkitu ziklo hau ezartzerakoan.

Nafarroako Gobernua ohart da gaurko gizartean haurtzaroak zer balio duen, eta zer garrantzi duen pertsonen nortasuna eraiki eta haien gaitasunak garatzerakoan lehenbiziko urteetatik hezkuntza hartzeak. Horregatik Foru Dekretu honen helburua da Nafarroako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeek kalitateko hezkuntza eman dezaten, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialak berdinak, eta berariaz antola daitezkeen familiekin batera haurrei bide eman diezaie-

ten beren nortasuna eta gaitasunak ahalik eta hobekien garatzeko, ongizate eta segurtasuneko testuinguru batean.

Nafarroako Gobernuak uste du, bestalde, ikastetxeek ematen duten zerbitzuak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalaren araberakoa izan behar duela, eta horretarako antolamendu malgua behar dela, familiei erantzun bat eman eta bai guraso bai langile gisa dituzten eginkizunak bateratzen uzteko modukoa.

Azkenik, bien lana da, bakoitzaren autonomiaren barrenean, bere proposamen pedagogikoa ikastetxeko hezkuntza proiektuaren esparruan eta Foru Dekretu honetan ezarri diren helburu, printzipio pedagogiko eta ebaluazio irizpideekin bat zehaztu eta garatzea.

Luis Campoy Zueco
Hezkuntza kontseilaria

Aurkibidea

28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena	9
Hezkuntza edukiak	39
1. esparrua. Afektuak eta gizarte harremanak	39
2. esparrua. Gorputza	43
3. esparrua. Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea . . .	45
4. esparrua. Komunikazioa eta hizkuntza	47
5. esparrua. Gorputz adierazpena, plastikoa eta musikakoa	51

28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

Azken aldian izan diren eraldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozial sakonek eta zientziaren eta ezagutzaren ekarpenek aldaketa handiak sortu dituzte haurtzaroari buruzko ikuspegian eta haurrek gaur egungo gizarteetan duten balioaren inguruan.

Haurrak garrantzitsuak eta baliotsuak dira, azaleratzen ari den errealitate gisa eta gure etorkizuna osatuko duten geroko herritar gisa ez ezik, baita ezaugarri eta nortasun propioa izanen duten eta bizi-modu eta baldintza zehatzak izanen dituzten herritarren talde gisa ere. Haurtzaroan, gainera, ikasteko gaitasuna dago, eta gizakiaren garapenerako erabakigarrienak diren eboluzio aurrerapenak izaten dira aro horretan. Egoera hori kontuan hartu behar da haur txikiei begira egiten diren hezkuntza politikak modu koherentean planifikatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean, hiru urtetik beherako haurrak era eta baldintza askotako zentroetan hartu dira azken urteotan: Nafarroako Gobernuaren haur eskolak, udalaren haur eskolak, haurtzaindegi pribatuak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuetan sortu diren 2 urteko haurrentzako gelak, etab.

Halaber, 2000. urtetik aurrera, Nafarroako Gobernuak abian jarri zituen hiru urtetik beherako haurrentzako zerbitzuak sortzeko politikak, orduan indarra zuen legeriaren esparruan. Politika horiek, Europar Batasunak planteatutako hezkuntza helburuekin hartutako konpromisoan oinarrituta eta Nafarroako Gobernuaren

eta toki entitateen arteko lankidetzaz baliaturik, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxe asko sortu dira udalen titular-tasanpean.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, I. tituluko I. kapituluan, Haur Hezkuntza arautzen du, eta 14.7 artikuluan ezartzen du hezkuntzako administrazioek haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak zehaztuko dituztela, eta ziklo hori emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautuko dituztela. Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen barnean, haur hezkuntzako lehen zikloa arautu ahal izateko beharrezkoa den esparrua sortu da.

Nafarroako Gobernuak argi du haurtzaroak gaur egungo gizartean duen balioa, hezkuntzak bizitzaren lehen urteetatik hasita zer garrantzi duen nortasunaren eraikuntzan eta pertsonaren gaitasunen garapenean, bai eta kulturaren eta horren euskarri diren balioen transmisioan eta berrikuntzan ere; horregatik, foru dekretu honen bidez lortu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitatezko hezkuntza guneak izatea, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialen konpentsazio gune; era berean, ongi antolatu nahi dira, haurrei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesu ezin hobea eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, guraso eta langile gisa duten lana bateratzeko erraztasunak emanez.

Horiek horrela, Hezkuntza kontseilariak proposaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena jaso ondoren, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko martxoaren hogeita seiko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DUT:

Atariko titulua

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzea, eta ziklo hori emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak ezartzea. Halaber, ikastetxeak sortu edo baimentzeko prozedura ezarri da.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

Foru dekretu honen aplikazio esparrua haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxe publiko eta pribatuak osatzen dute, foru dekretu honetan ezarritako baldintza eta betebeharren arabera betiere.

3. artikulua. Printzipio orokorrak

Haur hezkuntzaren lehen zikloak printzipio hauek izanen ditu oinarri:

- a) Hezkuntza inguruneen kalitatea, haurren hezkuntzan eragin zuzena edo zeharkakoa duten elementu guztiak kontuan hartuta.
- b) Zuzentasuna, hain zuzen ere desberdintasun pertsonal, kultural, ekonomiko eta sozialak konpentsatzeko elementu gisa ulertuta, eta hezkuntza gaitasunen, interesen, itxaropenen eta beharren aniztasunari egokitzeko bermea ematen duen elementu gisa ere ulertuta.
- c) Heziketa integral eta pertsonalizatua, horrela haurrei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesua eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

- d) Haurrak bere gaitasunetan konfiantza izatea, norberaren ekimena eta ahalegina.
- e) Familien, profesionalen, ikastetxeen, administrazioen, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzaz izatea eta denek ahalegina egitea kalitatezko hezkuntza lortzeko.
- f) Administrazio publikoen arteko lankidetzaz eta elkarlana haur hezkuntzako lehen zikloaren plangintzan eta inplementazioan.
- g) Zerbitzuen antolaketan malgutasunez jokatzeko, familiek haurrak hezi eta haztean dituzten beharrei eta lana eta familiako ardura bategarriak sortzen dituen beharrei erantzuteko.
- h) Hezkuntza komunitateak ikastetxeen gobernuan eta funtzionamenduan parte hartzea.
- i) Profesionalen lanak duen garrantzia aintzat hartzea, hezkuntzaren kalitatearen funtsezko faktore baita.
- j) Ebaluazioa, hezkuntzaren kalitatearen gako gisa.
- k) Ikerketa, saiakuntza eta berrikuntza bultzatzea hezkuntzaren alorrean.

I. titulua. Antolamendua

4. artikulua. Zikloaren ezaugarriak

1. Oro har, haur hezkuntzako lehen zikloan 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrak sartuko dira. Borondatezkoa izanen da, eta haurrei garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala lortzen laguntzea izanen du xede.

2. Haur hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen ahalko da ziklo osoa edo, gutxienez ere, zikloko urte oso bat ematen duten ikastetxeetan, betiere foru dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.

5. artikulua. Proposamen pedagogikoa

1. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen proposamen pedagogikoan sartuko dira hezkuntza lana arautuko duten helburuak, edukiak eta printzipio pedagogiko eta ebaluaziokoak. Edukiak, garapenaren eta esperientziaren esparruetan antolatutakoak, foru dekretu honen eranskinean ageri dira.
2. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeek proposamen pedagogikoa zehaztu eta garatuko dute, ikastetxearen hezkuntza proiektuaren esparruan.

6. artikulua. Helburuak

Haur hezkuntzako lehen zikloak ondoko helburuak lortu ahal izateko gaitasunak garatzen lagunduko die haurrei:

- a) Pixkanaka beren gorputzaz eta besteenaz ohartu eta ezagutzea, gorputzaren ahalbide eta mugak baloratu.
- b) Beren oinarrizko beharrei erantzutean eta ohiko jardueretan geroz eta autonomia handiagoa lortzea.
- c) Beren ingurune familiar, natural eta soziala behatu eta aktiboki aztertzea.
- d) Izaki bizidunetako eta ingurumenarekiko errespetu eta arretazko jarrerak garatzea.
- e) Helduekin eta beste haur batzuekin afektuzko loturak ezartzea, emozioak eta sentimenduak adierazi eta ulertuz eta interesa agertzeko eta laguntza emateko jarrerak garatu.

- f) Pixkanaka bizikidetzaren eta gizarte harremanen oinarrizko arauak ikastea, tolerantziaren aldeko eta bereizkeriarik gabeko jarrerak eta gatazka modu paketsuan konpontzeko estrategiak garatuz.
- g) Haurrek beren ikaskuntza prozesuetan aktiboki parte hartzea, nork bere gaitasunetan konfiantza izanez eta sormena, norberaren ekimena eta ahaleginak egin eta arriskuak hartzeko gaitasuna garatuz.
- h) Hitzeko hizkuntzaren jabe egitea pixkanaka, norberaren jokabidea eta besteena arautu, irudikatu eta komunikatzeko tresna den aldetik.
- i) Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan.
- j) Laneko teknikak ikasten eta ohitura intelektualak hartzen hastea, bai eta ezagutza zientifiko, tekniko, humanistiko, historiko eta artistikoak ere, saiakuntzaren, ekintzaren eta jolasaren bitartez.

7. artikulua. Printzipio pedagogikoak

1. Hezkuntzako ekintza bideratzen da ikasi, ezagutu, miatu, saiakuntzak egin, ezagutu eta ulertzeko atsegina sortzera, eta norberaren errealizazioari eta parte-hartze sozialari begira egonen den hezkuntza prozesuaren oinarria izanen da.
2. Haurrentzat interesa eta esanahia izanen duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira hezkuntzako edukiak. Ikastetxeetako eguneroko bizitzako ohiko egoerak jarduera horien ardatza osatuko dute.
3. Esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituko dira laneko metodoak. Segurtasun, afektu eta konfiantza giroan aplikatuko dira, haur bakoitzaren garapen erritmoa eta inguru familiar eta soziokulturaleko esperientziak erabat errespetatuta, autoestimua eta gizarteko integrazioa bultzatzeko.

8. artikulua. Ebaluazio printzipioak

1. Ebaluazioa hezkuntzako esku-hartzea eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko tresna bat izanen da.
2. Ebaluazioak funtsezko bi dimentsio hartuko ditu kontuan:
 - a) jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen balorazioa.
 - b) hezkuntzako esku-hartzearen eta laguntza pedagogikoaren egokitasunaren balorazioa.
3. Behaketa izanen da ebaluazioaren oinarrizko prozedura.

9. artikulua. Familiekin elkarlanean aritzea

1. Familiek beren haurren hezkuntzan duten funtsezko erantzukizuna errespetatzearen, ikastetxeak beraiekin elkarlanean arituko dira, eta bien arteko koordinaziorako beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte.
2. Hezitzaileek aldi-aldi haurren hezkuntza prozesuaren berri emanen diete familiei.
3. Hezkuntza Departamentuak, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan, bideak jarriko ditu familiak eta hezitzaileak haurren hezkuntzan elkarlanean aritu ahal izateko.

II. titulua. Zuzentasuna hezkuntzan

10. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Hezkuntza Departamentuak, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan, prebentzio eta konpentsaziozko jarduketara bermatuko du haur hezkuntzako lehen zikloan eskolatzeko baldintzetan, des-

berdintasunik izan ez dadin arrazoi pertsonal, sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko edo antzekoengatik.

2. Hezkuntza Departamentuak zilegi izanen du beste administrazio batzuekin edo irabazi asmorik gabeko entitate publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzea, baldintza pertsonal edo sozialengatik hasierako desberdintasuna duten ikasleen eskolatzeari eta garapena errazteari begira.
3. Ikastetxeek beharrezkoa den antolaketa izanen dute eta behar diren egokitzapenak egingen dituzte, ikasle guztiek ezarri diren xedeak lortzeko modua izan dezaten.

11. artikulua. Hezkuntzan berariazko laguntza behar duten ikasleak

1. Hezkuntzan berariazko laguntza behar duten ikasleak hauek dira: ezgaitasuna, jokabide-nahaste larria edo adimen-gaitasun handia izatearen ondorioz berariazko laguntza eta arreta behar dutenak.
2. Hezkuntza Departamentuak, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan, beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu berariazko laguntza behar duten ikasleen garapen pertsonal, intelektual, sozial eta emozional ahalik eta handiena bultzatzeko.
3. Hezkuntza Departamentuak, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan, beharrezkoak diren prozedura eta baliabideak ezarriko ditu berariazko laguntzaren beharra lehenbailehen identifikatzeko. Behar hori identifikatu bezain laster hasiko da hezkuntzan berariazko laguntza behar duten ikasleenganako arreta, eta normalizazioaren eta barne hartzearen printzipioek aginduko dute horren gainean.

12. artikulua. Onarpena

1. Hezkuntza Departamentuak arautuko du diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan ikasleak onartzeko modua, berdintasunezko bal-

dintzetan egin dadin. Edonola ere, hezkuntzan berariazko laguntza behar duten ikasleak modu egoki eta orekatuan banatuko dira.

2. Onarpenerako arauak aplikatzean berdintasunez jokatzeko den begiratu du Hezkuntza Departamentuak. Ez da inolako bereizkeriarik eginen jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza zein egoera pertsonal edo sozial dela eta.
3. Ez da 16 astetik beherako haurrik onartuko.

III. titulua. Ikastetxeak

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

13. artikulua. Definizioa

1. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak dira 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat hezkuntzako zerbitzu erregular bat ematen dutenak, hau da, zerbitzu jarraitu eta sistematikoa, foru dekretu honetan ezarritako baldintza eta betebeharre jarraituz.
2. Foru dekretu honen aplikazio esparrutik kanpo daude 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat diren eta foru dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen ez dituzten aisia, arreta edo zaintzako zerbitzu edo establezimenduak. Erakunde publiko eskudunek ezartzen dutenaren arabera arituko dira establezimendu horiek.

14. artikulua. Sailkapena eta izendapena

1. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak publikoak eta pribatuak izanen dira.
2. Ikastetxe publikoen titularra administrazio publiko bat izanen da eta Haur Eskolak izen orokorra hartuko dute.

3. Ikastetxe pribatuen titularra pertsona fisiko edo juridiko pribatua izanen da, eta edozein izen orokor hartzen ahalko dute, ikastetxe publikoei dagokiena edo haiekin nahastea ekar dezakeen bat izan ezik.
4. Ondokoek ez dute haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titular izaterik:
 - a) Estatuko, autonomia bateko edo toki erakunde bateko hezkuntza administrazioan lanean ari diren pertsonak.
 - b) Dolozko delituengatik aurrekari penalak dituztenak.
 - c) Epai judizial irmo baten ondorioz eskubide hori berariaz galdu duten pertsona fisiko edo juridikoak.
 - d) Pertsona juridikoak, baldin eta horietan sartzen diren eta aurreko ataletan aipatu diren pertsonak zuzendaritza karguak badiutuzte edo sozietatearen kapitalaren %20aren edo gehiagoren titularrak badira.
5. Ikastetxe guztiek berariazko izena izanen dute. Udalerri batean ez da zilegi izanen berariazko izen bera duten zenbait ikastetxe izatea.

15. artikulua. Egutegia eta ordutegia

1. Ikasturteak 11 hilabete izanen ditu gehienez.
2. Ikastetxeko ordutegiaren malgutasunen bidez zikloko hezkuntza eginkizuna eta haurren eta familien beharrak bermatu behar dira.
3. Hezkuntza Departamentuak egutegia eta ordutegia prestatzeko beharrezkoak diren arauak emanen ditu ikasturte bakoitzeko.
4. Oro har, haurrak ezin izanen dira egunean 8 ordu baino gehiago egon ikastetxean.

II. kapitulua. Betebehar fisikoak

16. artikulua. Betebehar fisikoak

Indarra duen legeriak higieneari, hotsari, bizigarritasunari eta segurtasunari buruz ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte ikastetxeek, eta horretaz gainera artikulua honetan ezarritako betebeharrak.

1. Gelek kanpotik heldu den aireztatze eta argizatze natural eta zuzena izan beharko dute. Logelek kanpotik heldu den aireztatze natural eta zuzena izan beharko dute.
2. Lokalak ikastetxeak soilik erabiltzeko izanen dira, bakoitzak kanpotik sartzeko bere sarbidea izan beharko du, eta kutsadura edo osasunarentzako arriskua sortzen duten jardueretatik urrun egon beharko dute.
3. Arazo fisikoak, mugimenduzkoak edo komunikaziokoak dituzten haurrek sartu, ibili eta komunikatzeko modua izan behar dute instalazioetan, irisgarritasuna eta oztopoen kentzea bultzatzearen arloan indarra duen legerian ezarritakoarekin bat.
4. Eremu hauek izan beharko dituzte ikastetxeek:
 - a) Unitate bakoitzeko gela bat, 30 metro karratukoa gutxienez. Unitate batentzako baino gehiagorentzako gelek 1,75 metro karratu izanen dute gutxienez haur bakoitzeko. Urte 1etik gorako haurrentzako gelek atsedenerako eremu bereziak izan behar dituzte.
 - b) Gela bakoitzeko bainugela bat, gelatik bertatik ikusiko dena eta bertatik sartzeko modua izanen duena. Elementu hauek behar ditu gutxienez ere: konketak, apal bat bainuontziarekin aldaketak egiteko, komun bat 8 haurren multzo bakoitzeko edo zatikiko, eta hondakinen edukiontzi bat, itxita egon beharrekoa. Gela batentzat baino gehiagorentzat izan daiteke bainugela, betiere gela horietatik ikusten bada eta geletatik bertatik sartzeko modua bada.

- c) Urte 1etik beherako haurrentzako logela bat.
- d) Janariak prestatzeko eremu egoki bat, indarra duen araudiak zehazten dituen ekipamenduentzako tokia izanen duena, ikastetxeak ematen dituen zerbitzuen arabera.
- e) Erabilera anitzeko gela bat, gutxienez ere 30 metro karratukoa, edo 30 metro karratu bizpahiru eremutan banatuak. Baldintza hori ez da bete behar 3 unitatetik beherako ikastetxeetan edo 3 unitate izan arren jantoki zerbitzurik ez dutenetan.
- f) Kanpoan egonen den jolaslekua, ikastetxeak soilik erabiltzekoa, gutxienez ere 75 metro karratu izanen dituena, edo 50 metro karratu 3 unitatetik beherako ikastetxeetan.
 - f.1) Ikastetxea Haur eta/edo Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean baldin badago, jolaslekua ikastetxean denek erabiltzen dutena izaten ahal da, baina haur hezkuntzako lehen zikloko haurrek beste ordutegi bat izanen dutela bermatzen bada.
 - f.2) Solairu bat baino gehiagoko ikastetxeetan, haurrek erabiltzen dituztenek jolaslekura zuzenean edo arrapala bidez irtetzeko modua izan behar dute; edo, hala ez bada, jolaslekurako irteerarik ez dutenek eremu bat izan behar dute kanpoaldean, haur bakoitzeko gutxienez ere metro karratu batekoa eta 20 metro karratukoa gutxienez.
 - f.3) Salbuespenez, aisiarako eremu publiko bat jolasleku gisa erabiltzen ahalko da, baldin eta ikastetxetik zuzenean jotzen ahal bada bertara eta haurren segurtasuna bermatzen bada.
- g) Ikastetxeko langileentzako aldagela eta komuna, haurrek erabiltzen dituzten eremuetatik bereizia, indarra duen araudian zehaztutako zerbitzuekin.
- h) Zuzendaritzarako eta bileretarako gela bat.

- i) Higienarako eta arropa gordetzeko eremu bat. 3 unitatetik beherrako ikastetxeetan, edo jantokirik gabeko ikastetxeetan, jana-riak prestatzeko eremuan jar daiteke eremu hori.
5. Ikastetxeek segurtasuneko arau hauek bete beharko dituzte:
- a) Haurrek erabiltzen dituzten eremuetan, zoruek azalera leuna izan behar dute, eta ezin dute ez porotsuak ez labainkorrak izan. Hala-ber, segurtasuneko eremu bat egonen da, zorutik hasita 1,50 metroko garaiera artekoa, koska zorrotzik, entxuferik, ispilurik edo segurtasunekoak ez diren kristalik edo beste edozein ele-mentu arriskutsurik gabe.
 - b) Haurrentzako erabilgarriak diren barneko ateeak behatzak ez harrapatzeko sistema izan beharko dute.
6. Haurrentzako instalazioetan altzari eta ekipamendu egokiak eduki behar dira, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako egokiak, erabilera segurua izateko moduan banatuak.
7. Ikastetxeek izanzen duten berotze sistemak 20 gradu bermatu behar ditu gutxienez gela guztietan.

III. kapitulua. Langileen betebeharrak

17. artikulua. Langileen titulazioa

1. Haur hezkuntzako lehen zikloko hurrekin hezkuntza lanean zuzenean aritzen diren langileek maisu-maistra titulua izan behar dute haur hezkuntzako espezializazioarekin edo baliokidea den gradu titulua; eta, hala denean, adin horretako hurrekin aritzeko beharrezkoa den titulazioa duten beste langile batzuk ere izaten ahal dira.
2. Nolanahi ere, haur hezkuntzako maisu-maistra titulua edo baliokidea den gradu titulua duen langile baten ardurapean egonen da proposamen pedagogikoa prestatu eta jarraipena egitea.

18. artikulua. Ratioak

1. Aldi berean ari diren unitateen kopurua gehi bat izanen da aldi berean arituko diren langileen gutxieneko kopurua.
2. Ikastetxe bakoitzak zuzendaria izanen du, Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen eginkizunekin.
3. Unitate bakoitzeko gehieneko haur kopurua:
 - a) Urte 1etik beherako haurrentzako unitateak: 8.
 - b) Urte 1etik 2 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 12.
 - c) 2 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 16.
4. Ikastetxearen antolaketak eskatzen duenean, adin desberdineko haurrak unitate batean bil daitezke, honako ratio hauek betez:
 - a) 0 eta urte 1eko haurrentzako unitateak: 8.
 - b) Urte 1 eta 2 urteko haurrentzako unitateak: 14.
 - c) Adin guztietako haurrentzako unitateak: 10.

IV. kapitulua. Parte hartzea eta autonomia

19. artikulua. Hezkuntza komunitatearen parte hartzea

Hezkuntza Departamentuak diru publikoa jasotzen duten ikastetxeen antolaketan, gobernuan, funtzionamenduan eta ebaluazioan hezkuntza komunitateak izanen duen parte-hartzea arautuko du.

20. artikulua. Autonomia pedagogikoa eta kudeaketakoa

1. Ikastetxeek autonomia izanen dute antolaketaren eta pedagogiaren eredia zehazteko, indarra duen legeriaren esparruan.

2. Autonomia hori hezkuntza proiektu batean eta kudeaketa proiektu batean zehaztuko da, bai eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamendurako arauetan ere.
3. Ikastetxeetako hezkuntza proiektuak bildu beharrekoa:
 - a) printzipioak, balioak eta jarduketaren lehentasunak, edo ikastetxearen beraren izaera.
 - b) proposamen pedagogikoa.
4. Kudeaketa proiektuan ikastetxeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide material eta ekonomikoak) antolatu eta erabiltzeko modua adieraziko da.

IV. titulua. Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak sortu eta baimentzea

I. kapitulua. Ikastetxe publikoak

21. artikulua. Sortzea

1. Hezkuntza Departamentuaren eta administrazio publiko interesdunen arteko hitzarmenen bidez sortuko dira Haur Eskolak, eta azken horiei egokituko zaie sortutako ikastetxeen titulartasuna.
2. Hitzarmenetan ikastetxearen ezaugarriak eta funtzionamendua zehaztuko dira besteak beste, eta, hala denean, finantziazioaren araubidea.

22. artikulua. Prozeduraren tramitazioa

1. Haur Eskola bat sortzeko prozedura administrazio publiko interesatuaren eskariz hasiko da, ikastetxea funtzionamenduan hasi baino sei hilabete lehenago, Hezkuntza Departamentura igorritako eskabidearen bitartez. Eskabidea Hezkun-

tza Departamentuaren Erregistroan aurkez daiteke edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.

2. Eskabidean datu eta agiri hauek agertuko dira:

- a) Ikastetxearen titularra den administrazio publikoa.
- b) Herrian edo eskualdean behar diren plazzen azterketa eta eskaintzaren plangintza.
- c) Proposatzen den berariazko izena.
- d) Ikastetxearen helbidea edo kokalekua.
- e) Emanen den irakaskuntza, zein adinetako haurrei zuzentzen zaion eta ikastetxeko unitateen kopurua.
- f) Instalazioen planoak.
- g) Eraikinaren jabetzaren egiaztapena edo kasuko lokalak erabiltzeko eskubidea frogatzen duen titulu juridikoarena, eta noiz arte erabiltzen ahalko diren.
- h) Eremuek eta instalazioek osasunaren, higienezaren eta segurtasunaren arloko araudi indarduna betetzen dutela adierazten duen ziurtagiria.
- i) Langileen zerrenda eta beren titulazioen egiaztapena, edo ikastetxea ireki aurretik aurkezteko konpromisoa.
- j) Ikastetxeko altzarien eta ekipamenduaren egiaztagiriak, edo ikastetxea ireki aurretik aurkezteko konpromisoa.
- k) Hezkuntza proiektua, edo ikastetxea ireki eta lehen kurtsoan aurkezteko konpromisoa.

- l) Kudeaketa proiektua, edo ikastetxea ireki eta lehen kurtsoan aurkezteko konpromisoa.
 - m) Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendurako arauak, edo ikastetxea ireki eta lehen kurtsoan aurkezteko konpromisoa.
3. Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek ondokoa egiaztatu eta txostena eginen dute, hala behar denean:
- a) Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak:
 - a.1) Instalazioen egokitasuna.
 - a.2) Altzarien eta ekipamenduaren egokitasuna, bai eta behar beste diren ere.
 - a.3) Plantillen egokitasuna eta langileen titulazioa.
 - b) Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak:
 - b.1) Hezkuntza eta kudeaketa proiektuen egokitasuna, bai eta ikastetxeko antolaketa eta funtzionamendurako arauen egokitasuna ere.
 - c) Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuak:
 - c.1) Beharrei buruzko azterketaren eta unitate eskaintzaren plangintzaren egokitasuna.
4. Aurreko txostenak ikusirik, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak hitzarmena sinatzeko proposamena eginen du, baimena lortzeko eskabidea aurkeztu eta lau hilabeteko epean, eta horri aginduzkoa den dokumentazioa gehituko dio, artikulua honekin ezarritakoarekin bat.
5. Hitzarmenaren bidez sortzen diren Haur Eskolak Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko dira, datu hauek agertzen direla:
- a) Ikastetxearen kodea.
 - b) Ikastetxearen titularra.

- c) Ikastetxearen helbidea edo kokalekua.
- d) Berariazko izena.
- e) Ematen den irakaskuntza, zein adinetarako den zehaztuta.
- f) Unitate baimenduen kopurua.

23. artikulua. Ikastetxeen ezaugarrien aldaketa

1. Hitzarmena aldatzea ezinbestekoa izanen da ondoko egoeretako-
ren bat sortzen denean:
 - a) Ikastetxearen berariazko izena aldatzea.
 - b) Instalazioen aldaketa, eremuen neurriak edo erabilera zein xedea aldatzea ekartzen badu.
 - c) Baimendutako irakaskuntzaren xede diren adinetan aldaketa izatea.
 - d) Unitate kopurua handitu edo murriztea.
 - e) Ikastetxearen titulartasuna aldatzea.
2. Aldaketa egin nahi duen ikastetxearen titularrak eskaera eginen dio Hezkuntza Departamentuari, eta aldaketa egiteko arrazoiak adieraziko ditu eskaera horretan. Hezkuntza Departamentuko Erregistroan aurkezten ahalko da edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.
3. Hezkuntza Departamentuko kasuan kasuko zerbitzu teknikoek beharrezkoak diren txostenak eginen dituzte, eskaera nolakoa den kontuan hartuta eta aurreko artikuluetan aipatu den eskumen esparruan.

4. Txosten horiek ikusirik, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak hitzarmena aldatzeko proposamena egingen du.
5. Onartzen den aldaketaren ondorioz, hala denean, ikastetxeak Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Erregistroan duen inskripzioa aldatuko da.

24. artikulua. Ikastetxe publikoak kentzea

1. Ikastetxe bat kentzeko espedientea aldeetako edozeinek hitzarmenaren amaiera iragartzearekin hasiko da. Hitzarmenari amaiera emateko arrazoi hauetakoren bat izan behar da:
 - a) Hitzarmena ez betetzea.
 - b) Foru dekretu honetan edo aplikatu beharreko araudian ageri diren baldintzak ez betetzea.
 - c) Eman beharreko irakaskuntza ez betetzea, ikastetxea sortzeko hitzarmenean azaldutakoaren arabera eta araudi indardunari jarraikiz.
 - d) Behar adinako plaza eskaririk ez izatea.
2. Hezkuntza Departamentuko kasuan kasuko zerbitzu teknikoek beharrezkoak diren txostenak egingen dituzte, hitzarmenari amaiera emateko arrazoiaren arabera eta aurreko artikuluetan aipatu den eskumen esparruan.
3. Txostenak eginik, ikastetxeko titularrari 10 egun balioduneko entzunaldia eskainiko zaio eta, hala behar denean, ikusi diren okerak edo ez-betetzeak zuzentzeko epe bat.
4. Epe hori bukatutakoan, eta espedientea irekitzea ekarri zuten oker edo ez-betetzeek berdin badiraute, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak ikastetxea kentzeko proposamena egingen du.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ikastetxeak sortzeko hitzarmenen sinadurarako eskumena duen organoak berak izanen du ikastetxeak kentzeko eskumena. Ikastetxea kentzeko baimena ematen duen egintzak zilegi izanen du kentzearen ondorioak pixkanaka gertatzeko baimena ere ematea, ikastetxean matrikulatuta dauden haurren eskolatzeari kalterik ez egiteko.
6. Ikastetxearen kentzea agindu eta gero ikastetxe horren baja emanen da Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Erregistroan.

II. kapituluak. Ikastetxe pribatuak

25. artikulua. Administrazio baimena

1. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuak ireki eta funtzionatzen hasteko administrazio baimena beharko da, kapitulu honetan ezarri den moduan.
2. Baimena lortu ahal izateko, foru dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoa bete beharko dute ikastetxeek.
3. Ikastetxea ireki eta funtzionamenduan hasteko baimenak foru dekretu honen 28.6 artikulua aipatzen duen ebazpenaren egunaren ondoko ikasturtean hartuko du indarra. Hala ere, ikastetxearen titularrak eska dezake atzera dadila ikastetxea funtzionamenduan hasteko eguna.

26. artikulua. Baimena lortzeko eskaera

1. Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak tramitatuko du haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe bat ireki eta funtzionatzen hasteko baimenaren espedientea.

2. Prozedura sustatzailearen eskariz hasiko da, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaion eskabidearen bitartez. Eskabide hori Hezkuntza Departamentuko Erregistroan aurkeztzen ahalko da edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.
3. Eskabidean datu hauek agertuko dira:
 - a) Ikastetxea sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
 - b) Proposatutako izen orokorra eta berriazko izena.
 - c) Ikastetxearen helbidea edo kokalekua.
 - d) Baimena zein irakaskuntzatarako eskatzen den eta zein adinetarako izanen den zehaztea.
 - e) Unitate kopurua.
4. Eskabidearekin batera aitorten edo adierazpen bat aurkeztuko da, zeinean azalduko baita ikastetxearen sustatzailea ez dagoela foru dekretu honen 14.4 artikuluan aurreikusten diren kasuetako bakar batean ere.
5. Ikastetxea eraikitzeke egin beharreko obren proiektua ere aurkeztuko da. Proiektu horrek kontuan hartu beharko ditu foru dekretu honetan ezarritako baldintzak. Lehendik eginda dauden eraikinak badira, instalazioek gaur egun dituzten planoak aurkeztu beharko dira eta, hala izanez gero, egokitzeko egin nahi diren obren proiektua. Era berean, eraikinaren jabetzaren egiaztapena edo lokalak erabiltzeko eskubidea frogatzen duen titulu juridikoarena, eta noiz arte erabiltzen ahalko diren.
6. Aurkeztutako eskabidean eta agirietan okerren bat baldin badago edo osorik ez baldin badaude, interesatuari 10 egun balioduneko

epea emanen zaio okerra zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzan; ohartaraziko zaio hala egin ezean bere eskaera bertan behera geldituko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridiko-ari eta Prozedura Administratibo Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua ezarritako moduan ebazpena eman ondotik.

27. artikulua. Aurretiko ebazpena

1. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak, aurretik Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak txostena ikusita, instalazioak foru dekretu honetako baldintzetara egokitzeari buruzko ebazpena emanen du.
2. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak hiru hilabeteko epean emanen du ebazpena, ikastetxearen sustatzaileak foru dekretu honen 26. artikulua araberik ikastetxea irekitzeko baimena eskatu eta gero.

28. artikulua. Baimena ematea

1. Aurreko artikuluan aipatutako ebazpenak adierazten badu proposatu diren instalazioek foru dekretu honen 16. artikuluko baldintzak betetzen dituztela, interesatuak baimena eskatuko du artikulua honetan ezarritakoari jarraikiz, eta obrak egitea beharrezkoa izanez gero, horiek bukatutakoan egingen du eskaera.
2. Eskaera Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiari zuzenduko zaio, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:
 - a) Eremuek eta instalazioek osasunaren, higienezaren eta segurtasunaren arloko araudi indarduna betetzen dutela adierazten duen ziurtagiria.
 - b) Langileen zerrenda eta beren titulazioen egiaztatpena, edo ikastetxea ireki baino hilabete lehenago aurkezteko konpromisoa.

- c) Proposamen pedagogikoa.
 - d) Altzarien eta ekipamenduaren egiaztagiriak.
3. Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek ondokoa egiazta-
tu eta txostena eginen dute, hala behar denean:
- a) Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak:
 - a.1) Instalazioen egokitasuna, edo bere garaian onetsi zen eta
foru dekretu honen 27. artikulua aipatutako ebazpena
sorrarazi zuen proiektuarekin bat etortzea.
 - a.2) Altzarien eta ekipamenduaren egokitasuna, bai eta behar
beste diren ere.
 - a.3) Plantillen egokitasuna eta langileen titulazioa.
 - b) Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak:
 - b.1) Indarra duen legeriari jarraikiz ikastetxeei eskatzen ahal
zaizkien alderdi pedagogikoak eta antolakuntzakoak.
4. Aurreko txostenak ikusirik, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren
Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du ikastetxea ireki eta
funtzionatzen hasteko baimena eman edo ukatzeko.
5. Interesatuak, artikulua honetan ezarritakoari jarraikiz, baimena
lortzeko eskabidea eta behar diren agiriak aurkeztu eta lau hila-
beteko epean emanen da ebazpena.
6. Ikastetxea irekitzeko baimena ematen duen ebazpenean ondoko
datuak agertuko dira eta Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko:
- a) Ikastetxearen kodea.
 - b) Ikastetxearen titularra.
 - c) Ikastetxearen helbidea edo kokalekua.
 - d) Izen orokorra eta berariazkoa.
 - e) Baimendutako irakaskuntza eta zein adinetarako den.

f) Unitate baimenduen kopurua.

29. artikulua. Baimena aldatzea

1. Honako egoera hauen ondorioz alda daiteke baimena:
 - a) Ikastetxearen izen orokorra edo berariazko izena aldatzea.
 - b) Instalazioen aldaketa, baimena emateko kontuan hartu ziren eremuen neurriak edo erabilera zein xedea aldatzea ekar-tzen badu.
 - c) Baimendutako irakaskuntzaren xede diren adinetan aldaketa izatea.
 - d) Unitate kopurua handitu edo murriztea.
 - e) Ikastetxearen titulartasuna aldatzea.
2. Instalazioak lekuz aldatzearen ondorioz helbidea aldatzen bada, beste baimen bat eskatu beharko da.
3. Aldaketa egin nahi duen edo beste baimen bat lortu nahi duen ikastetxearen titularrak eskaera egingen dio Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiari, eta arrazoiak adierazi-ko ditu eskaera horretan. Hezkuntza Departamentuko Erregis-troan aurkezten ahalko da edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.
4. Hezkuntza Departamentuko kasuan kasuko zerbitzu teknikoek beharrezkoak diren txostenak egingen dituzte, eskaera nolakoa den kontuan hartuta eta aurreko artikuluetan aipatu den eskumen espa-r-ruan.
5. Ezin izanen da ikastetxe baten titularra aldatu baimena balioga-betzeko espediente bat tramitatzen ari direnean.

6. Aldaketa edo baimen berria Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpen baten bidez onetsi behar da, baldin eta foru dekretu honetako baldintzak betetzen badira.
7. Eskabidea aurkeztu eta hiru hilabeteko epean izanen da espedienteari amaiera emanen dion ebazpena.
8. Onartzen den aldaketaren ondorioz, ikastetxeak Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Erregistroan duen inskripzioa aldatuko da.

30. artikulua. Baimena iraugitzea

1. Baimena iraugitzen ahal da ikastetxeak bere jarduerak uzteagatik, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak berariaz baliogabetzeagatik, edo titularraren eskariz, hurrengo ataletan agertzen den moduan. Edonola ere, baimenaren iraugipenak hurrengo ikasturtearen hasieratik izanen ditu ondorioak.
2. Ikastetxeak jarduerak uztearen ondoriozko baimen iraugitzea ofizios deklaratu da, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez, ikastetxeak egitez uzten dituztenean bere jarduerak.
3. Baimena baliorik gabe utziko da ikastetxeek foru dekretu honetako gutxieneko baldintzaren bat betetzeari uzten diotenean edo baimendutako irakaskuntza ematen ez dutenean, aplikatu beharreko hezkuntza araudiarekin bat.
4. Iraungitzearen espedienteak Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzuak tramitatuko du eta, zerbitzu eskudunek emandako txostenak eta interesatuaren alegazioak ikusirik, ebazpen proposamena eginen dio Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiari.
5. Baimenaren iraugitzea Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emanen duen ebazpen baten bidez erabakiko da, eskabidea egin edo espedienteak hasi eta hiru hilabeteko epean; horren

ondoren Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Erregistroan baja emanen da.

6. Baimena iraungitzeko ebazpenean onesten ahalko da ondorioak pixkanaka gauza daitezela, matrikulatutako haurrenganako arretari kalterik ez egiteko.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Langile gaituak

17. artikuluan aipatutako langileez gainera, zilegi izanen dute haur hezkuntzako lehen zikloa ematea 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduan ezarritakoaren arabera gaitu diren langileek. Agindu horren bidez homologatu egin ziren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzako espezializazio kurtsoak eta haur hezkuntzako lehen zikloko profesionalentzako gaikuntzakoak.

Bigarrena. Ikasleen datu pertsonalak

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak bil ditzakete, hezkuntza lane-rako beharrezkoak direnak, datuak babesteari buruzko legeari ezarritako moduan.

Hirugarrena. Plangintza

Hezkuntza Departamentuari dagokio Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloan izanen diren plazen eskaintza publikoaren plangintza egitea, foru dekretu honetako 22.2.b) artikuluan ageri diren ondorioetarako.

Laugarrena. Langileen etengabeko prestakuntza

Hezkuntza Departamentuak etengabeko prestakuntzako jarduerak prestatuko ditu haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten

ikastetxeetako langileentzat, askotariko eta doaneko eskaintza eginez.

Bosgarrena. Ikuskapena

Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari dagokio haur hezkuntzako lehen zikloan hezkuntza arloko ikuskapen lana egitea.

Seigarrena. Espedienteak tramitatzea

Foru dekretu honen IV. tituluan araututako prozeduretan berariazko ebazpenik ematen ez bada kasu bakoitzean esandako epeetan, ezetsizat joko dira prozedurei hasiera eman zieten eskaerak.

Zazpigarrena. Titulazioak

Foru dekretu honen 17. artikulua aipatzen dituen titulazioak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa garatzeko Gobernuak ezartzen dituenak izanen dira.

Zortzigarrena. Ezarpena

Haur hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntza 2008/2009 ikasturtean ezarriko da orokorrean. Hala ere, foru dekretu honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeek lehenago tramitatu eta lortzen ahal dute horretarako baimena.

Xedapen Iragakorrak

Lehena. Titulartasun publikoko ikastetxeak egokitzea

Titulartasun publikoko ikastetxeek, foru dekretu honek indarra hartzean, 3 urtetik beherako haurrak hartzen badituzte, irakaskuntza hori ezarri eta hiru urteko epea izanen dute eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta, udal titulartasuneko ikastetxeen

kasuan, ikastetxea foru dekretu honetako IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz eratzeko.

Bigarrena. Ikastetxe pribatuak egokitzea

Ikastetxe pribatuak, foru dekretu honek indarra hartzean, 3 urte-tik beherako haurrak hartzen badituzte, irakaskuntza hori ezarri eta hiru urteko epea izanen dute eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta ikastetxerako baimena eskatzeko, foru dekretu honeko IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz. Epe hori bukatutakoan, ez da zilegi izanen ikastetxeetan Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako zerbitzurik izatea baldin eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 2/2006 Lege Organikoan ageri den haur hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntza emateko baimenik ez badute.

Xedapen Indargabetzailea. Bakarra. Arau indargabetuak

Foru dekretu hau haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxe guztiei aplikatuko zaie eta, hortaz, indarrrik gabe geldituko da, ziklo horri dagokionez, otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa onetsi zuena, eta uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean araubide orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezarri zuena. Indarrrik gabe gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Erregelamendu bidezko garapena

Baimena ematen zaio Hezkuntza kontseilariari foru dekretu hau bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarra hartzea

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak

Garapeneko eta esperientziako esparruak

Hezkuntza edukiak esparrutan egituratzearen xedea da hezitzaileei laguntza ematea horien elementuak testuinguru orokorrago batean aztertzeko eta beren hezkuntza lana modu sistematikoan planifikatu eta garatzeko. Arrazoi psikoebolutiboak eta ziklo horretako hezkuntza esperientzien azterketa kontuan hartuta ezarri dira ondoren proposatzen diren esparruak.

1. esparrua. Afektuak eta gizarte harremanak
2. esparrua. Gorputza
3. esparrua. Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea
4. esparrua. Komunikazioa eta hizkuntza
5. esparrua. Gorputz adierazpena, plastikoa eta musikakoa

1. esparrua. Afektuak eta gizarte harremanak

Afektuen eta gizarte harremanen esparruak azpimarratzen du garapenean garrantzia handia dutela alderdi emozionalak eta gizarte harremanen ingurukoek, horrek segurtasunezko oinarria ematen baitu munduarekin eta besteekin harremanetan hasteko. Zaintzen eta hezten gaituzten pertsona helduekin izaten ditugun afektuzko harremanen segurtasun emozionalak eta kalitateak sortzen duten oinarriaren gainean hazten da pertsona eta hala garatzen dira gaitasun

guztiak; hala, gizarte harremanetarako ereduak eta arauak ikasten ditugu, gizartean modu zehatz batean eratzten dugu jokabidea eta pixkanaka eraikitzen gure nortasuna.

Haurra Haur hezkuntzako ikastetxe batera joaten hasten denean, trantsizio aldi bat behar izaten da famili giroaren eta egoera berriaren artean. Haurrak atxikimenduzko figura nagusiengandik bereizi behar du eta bigarren mailako atxikimenduzko loturak sortu behar ditu ikastetxean, inguru berri bat ezagutu behar du eta bertako berezitasunetara egokitu. Beharrezkoa da, beraz, plangitza arduratsu eta bana-banakoa egitea, haurraren eta bere famili ingurunearen egoera eta beharrak orokorrean kontuan hartuta. Litekeena da horren iraupena desberdina izatea haur batzuen eta besteen artean, eta horrek eskatzen du hezitzaileek jarrera zehatz batzuk hartzea, ingurune berria pixkanaka ezagutzeko jarduerak egitea, antolaketa neurriak hartzea eta gurasoen laguntza izatea.

Haur hezkuntzako ikastetxeak ingurune orekatua izan behar du haurrarentzat eta ongizate emozionala sortu behar dio, giro bero, egonkor, seguru eta alai batean. Haurrari tratu adeitsu eta afektuzkoa eman behar dio, laguntza esplizitua, haurraren gauzen aurrean interesa agertu behar du eta bere beharren aurrean sentsibilitatez jokatu. Bere ahalbideen aurrean konfiantza eman behar du eta espektatiba handiak, eta ingurune horretan garbi ezarri behar ditu mugak eta arauak.

Emozioek eboluzionatu egiten dute garapenean zehar, bai konplexutasunean bai adierazteko moduan; oinarrizko beharrak asetzera oso lotuta dauden lehenbiziko emozioetatik emozio kontziente edo soziomoraletara arte, horiek ondokoekin batera agertzen baitira: nia eta autokontzientzia garatzearekin, arau eta balio horien inguruan nor bere jokabidea ebaluatzearekin eta arrakastaren edo porrotaren aurrean norberak erantzukizuna hartzearekin batera.

Era berean, besteen emozioen ulermenak ere eboluzionatzen du, hain zuzen ere kutsatze emozionaletik norberarenak bezalako egoera emozionalen egozpenera arte eta, neurri batean, bestearen lekuan

jartzeko eta laguntza eta kontsolamendu jarrerak agertzeko gaitasunera arte.

Haur hezkuntzako ikastetxeak beste ingurune batzuek baino aukera gehiago ematen ditu talde egonkorretan berdinen arteko elkarrekintza izateko, besteak ulertzen ikasteko eta gizarteko elkarrekintzaren arauak ikasteko. Prozesu horretan jolasa da funtsezko jarduera. Sentimendu biziak adierazteko bidea ematen du, bai eta besteak egiten dutena ikusi eta imitatzekeo, gauzak partekatzekeo eta horien jabetzagatik edo beste arrazoi askorengatik sortzen diren liskarrak konpontzekeo, borrokak simulatzeko, pertsonaiak eta rolak simulatzeko; azken batean, bizipenak modu simbolikoan irudikatzekeo bidea ematen du. Haurrei aukera ematen die besteen pentsamendura eta emozioetara hurbiltzekeo, aldi batez beren plan, beldur eta itxaropenetan sartuz, arriskurik gabeko ingurune batean, errealitateak izanen liratekeen ondorioen eraginpean egon gabe.

Errutinatzat honako hauek hartu ohi dira: elikadurarekin, atsedeanekin, higienarekin, harrera eta agurrarekin eta materialen antolaketa-zaintzarekin zerikusia duten oinarrizko gaitasun eta ohiturak. Hezkuntzaren arloko oinarrizko egoera oso indartsuak dira, afektu, segurtasun eta ongizate giroan gauzatu beharrekoak. Praktika horiek gehienetan elkarrekintza mota zehatz baten bidez (formatuak izenekoa) garatuko dira; balio berezia du helduekin komunikazioa sortzekeo eta haurrek elkarrekintza konplexuko egoeretan gaitasunez parte hartu ahal izatekeo. Bestalde, ikaskuntza horien eta horietan azkenean lortuko duten autonomia mailaren bidez, sozialki ezarrita dauden formak hartzen dira oinarrizko beharrei erantzutekeo.

Edukiak:

1. Lehenbiziko loturak ikastetxean.
 - 1.1. Afektuzko loturak eraikitzea ikastetxearen ingurunean.
 - 1.2. Ikastetxearen ezaugarrietara pixkanaka egokitzea: eremuak, ordutegiak, erritmoak, etab.

2. Ongizate emozionala eta oinarrizko beharrei erantzutea.
 - 2.1. Gelak eta instalazioak ezagutu eta identifikatzea.
 - 2.2. Ohiko jarduerak egunean zehar nola banatzen diren jakitea.
 - 2.3. Ikastetxera joan eta han egoteko interesa eta nahia.
 - 2.4. Onartua, baloratua eta errespetatua dela sentitzea.
 - 2.5. Mina, gosea, logura eta tenperatura sentitzen dutenean sentsazio horiek identifikatzea eta horien konpentsazioan ekimena izatea.
 - 2.6. Loaren eta esna-aldiaren, jardueraren eta atsedenaren erritmoak erregulatzea.
 - 2.7. Gustura eta plazerez jatea. Elikagai batzuk eta besteak pixkanaka sartzea.
 - 2.8. Janariaren alderdi sozial eta kulturalak pixkanaka sartzea.
 - 2.9. Higiene eta garbiketa ohituretan geroz eta kontrol eta autonomia handiagoa izatea. Garbitasuneko sentsazioak gustura eta plazerez hartzea.
 - 2.10. Arropa bere alderdi funtzional, sozial eta kulturalak kontuan harturik erabiltzeko geroz eta ekimen eta parte-hartze handiagoa izatea.
3. Emozioak adierazi eta ulertzea.
 - 3.1. Sentimendu eta emozio oinarrizko eta soziomoralak adieraztea.
 - 3.2. Pixkanaka estrategiak hartzea, egoera zein ingurune desberdinetan eta besteen erreakzioen aurrean egokitzeko moduren arabera erregulatzeko egoera emozionalak.
 - 3.3. Besteen sentimendu eta emozioak aintzat hartzea. Enpatia.
4. Trebetasun sozialak berdinekin harremanak izatean.
 - 4.1. Ereemuak, gauzak eta arretak partekatzeko geroz eta ohitura handiagoa hartzea. Eroapena izatea eta itxaroten jakitea.
 - 4.2. Jarduera eta jolasetan beste batzuekin batera parte hartzea eta pixkanaka elkarrekintza pertsonaleko trebetasunak sartzea.
 - 4.3. Besteen ekintza eta jokabideak behatu eta imitatzea, eta objektuengatik sortzen diren liskarrak konpontzea.

5. Bizikidetzarako akordio eta arauak.
 - 5.1. Materialak prestatu eta biltzeko errutinetan parte hartzea.
 - 5.2. Ikastetxeko instalazio eta baliabideak zaindu eta kontserbatzen laguntzea.
 - 5.3. Segurtasun arauak pixkanaka barneratzea.
 - 5.4. Eguneroko bizikidetzan portaera egokiak eta desegokiak bereiztea.
 - 5.5. Besteekin izaten diren harremanetan bete beharreko arauetara pixkanaka egokitzea.

2. esparrua. Gorputza

Esparru honetan gorputzaren ezagutza eta kontrolarekin zerikusia duten garapenaren esperientziak eta alderdiak aipatzen dira, eta honako hauek sartzen: zentzumenen bidezko saiakuntza, gorputza eta bere atal desberdinak ezagutzea, gorputzak ekintzarako, adierazpenerako eta mugimendurako dituen ahalbideak, baita mugak ere, eta bakoitzak berari buruzko kontzientzia eraikitzea.

Gorputza da haurrek errealitatearekin harremana izateko duten tresna nagusia, irrikaren eta emozioaren barne dinamika adierazteko eta ezagutzak integratzeko. Saiakuntzaren, harremanen eta adierazpenaren iturri da eta jarduera autonomoaren oinarri; azken hori hezkuntza jardueraren xede nagusietako bat da lehen urte horietan. Xede horren lorpenak berarekin dakar segurtasun fisikoa eta afektuzkoa izanen duen giroa sortzea, estimulu eta egoera ugariak, hurrei lasaitasuna eta konfiantza eman eta ekintzarako interesa eta ekimena piztuko diena.

Gorputzaren ezagutza eta norberaren kontzientzia eraikitzeko lanean sartzen dira sentsazioen, mugimenduen eta ekintzen bidez lortutako ezagutzak, hasiera batean lotura handia dutenak mugimenduen garapenarekin eta nerbio sistema zentrala heltzeko prozesuarekin. Borondatezkoa eta koordinatua ez den arlotik boronda-

tezkora, kontrolatura eta kontzientea denera iragateak eta, gero, hizkuntza eskuratzeak beharrezkoa den egitura emanen du identitate geroz eta bereziagoa antolatzeko.

Bestalde, gorputz identitatea ingurune sozial eta afektuzko batean eraikitzen da, eta plazerarekin, gaitasunarekin eta eraginkortasunarekin zerikusia duten sentimendu eta emozioak daude horri lotuta. Sentimendu horiek, gorputz lorpenei lotuta, helduekin eta berdinekin izaten diren harremanetan sortzen dira, onarpeneko jarre-
rak eta beren lorpenak ontzat ematen dituzten sentimenduak hautematen dituztenean.

Ikastetxeak eremu egokiak izan behar ditu haurrak zentzumenen bidezko azterketan ari direnean autonomiaz aritzeko eta mugimenduak erraz egiteko; beren gisa eta beren erritmoan aritzeko aukera izan behar dute, beren ekintzak eta beren lorpenek helburu berrietara iristeko bidea jar dezaten.

Edukiak:

1. Gorputza sentazioen, ekintzen, harremanen eta esperientzien iturri dela ohartzea.
 - 1.1. Gorputzaren ahalbideekin saiakuntzak egitea eta ahalbide horiek identifikatzea.
 - 1.2. Norberaren gorputza atalka eta orokorrean ezagutzea.
 - 1.3. Zentzumenak sentazioen eta hautemateen iturri direla ohartzea.
 - 1.4. Ezaugarri eta kalitate pertsonalak identifikatu eta onartzea.
 - 1.5. Gorputzak besteenekin alderatuta dituen desberdintasun eta antzekotasunez ohartu eta onartzea.
 - 1.6. Bakoitzak bere irudia eta dagokion irudikapena ezagutzea.
 - 1.7. Gorputz egoera desberdinak ezagutzea.
 - 1.8. Norberaren gorputzari eta bere ahalbideei buruzko balorazio zehatz samarra egitea.
2. Gorputza mugimenduan. Eremua bereganatzea.
 - 2.1. Mugimendu aukera eta mugak aztertu eta identifikatzea.

- 2.2. Norberaren gorputza atalka eta orokorrean koordinatu eta kontrolatzea.
- 2.3. Gorputzaren tonu eta jarrera egoera desberdinetara egokitzea.
- 2.4. Lekualdatzeak: jarrera aldaketak, arrastaka mugitu, lau hankan ibili, ibili eta laster egin, etab.
- 2.5. Gorputzak, mugitzen ari denean, sortzen dituen sententziazioez ohartzea.
- 2.6. Norberaren mugimendua espazioaren eta besteen mugimenduaren arabera egokitzea.
- 2.7. Tresnak erabili eta ezartzen direnean manipulaziorako trebetasun eta abileziak izatea.
- 2.8. Mugimendu lorpenetarako ekimena eta ahalegina.
- 2.9. Arrisku egoerez ohartzea, eta horiek saihesteko estrategiak eta baliabideak erabiltzea.

3. esparrua. Ingurune fisikoa eta soziala

Ingurune fisiko eta sozialaren esparruan biltzen da adin horretako haurren errealitatea osatzen duenaz ohartzea eta ezagutu eta ulertzea, batez ere beren esperientziazio hurbil dagoen oro. Horretan sartzen dira hurbileko inguruneak, objektu fisikoak, gertaerak, antolamenduak eta gizarte harremanak, bai eta fisikoki edo denboraren aldetik urrun egon arren haurraren interesa eta jakin-mina pizten duten batzuk ere.

Zikloan zehar, saiakuntzari eta hizkuntzari esker, haurrak eboluzionatzen joanen dira, zentzumen eta mugimendu bidezko ezagutza hurbiletik hasi eta munduari buruzko ezagutza eskemak eta teoria propioa osatzera iritsi arte.

Objektuekin eta materialekin saiakuntzak egiteari esker bi ezagutza mota lortuko dira funtsean: ezagutza fisikoa eta ezagutza logiko-matematikoa. Ezagutza fisikoa objektuen berezko ezaugarrien ingurukoa da: kolorea, soinua, gogortasuna, pisua, etab.; ezagutza logiko-mate-

matikoa objektuekin egiten diren ekintzen bidez lortzen da: antolatu, erkatu, bildu, etab. Bi ezagutza horiek batera doaz adin horietan.

Segurtasun eta afektuzko oinarri batetik abiatuta, zenbait material erabiliz behaketa, azterketa, saiakuntza eta jolasak egiteko denborak eta eremuak antolatuko dira, autonomiaz erabiltzeko aukera emanaz. Hezkuntzako proposamen irekiak diseinatuko dira, gatazka kognitiboak eta egokitze ahalegin txikiak sustatzeko bidea emanen dutenak, eta hezkuntza arloko esku-hartzea eginen da banan-banan ekintzaren behaketa, laguntza edo gidaren inguruan, egoera bakoitzeko beharrak kontuan hartuta beti.

Izaki bizidunekin, naturarekin eta gizarte ingurunearekin zerikusia duten edukiek aukera eman behar diete haurrei ezagutza zientifikoaren mundura ikuspegi orokor eta ludiko batetik hurbiltzeko, beraientzat interesgarrienak diren alderdietatik abiatuta betiere. Izaki bizidunen ezaugarri eta formei, naturako fenomenoei eta giza taldeen antolamendu eta jardueri buruzko gauzak ikasiko dituzte. Era berean, ezagutzara hurbiltzean interesa, jakin-mina eta zorroztasuna garatuko dute, bai eta habitaten zainketan eta kontserbazioan parte hartu eta arduraz jokatzeko jarrerak ere.

Eduki horiek egiazkoak eta hurbilak izan daitezten, ikastetxeek irekiak egon behar dute beren inguruneari, ondoko errealitate soziokulturalari eta urrunekoa izan arren haurren interesetatik hurbil dagoen errealitateari. Alde horretatik, informazioaren gizarteko tresna modernoak, ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak erabiltzeak aberastu egiten ditu eskuragarri dauden materialak.

Edukiak

1. Objektuak eta materialak.

- 1.1. Zentzumenen eta ekintza desberdinen bidezko azterketa.
- 1.2. Zentzumenezko kalitateak, ezaugarri morfologikoak eta funtzionalak identifikatu, izena eman eta konparatzea.
- 1.3. Ezaugarri jarraituak eta aldakorrak bereiztea.

- 1.4. Erlazioak ezartzea. Antolamendua, elkarrekikotasuna, sailkapena.
 - 1.5. Objektu eta materialei buruzko ekintzekin saiakuntzak egitea.
 - 1.6. Saiakuntzen adierazpena eta irudikapena.
 - 1.7. Espazioari buruzko oinarrizko nozioak ezagutzea norberaren gorputzari, helburuei eta ekintzei dagokienez.
 - 1.8. Kantitateak kalkulatzeko.
2. Izaki bizidunak eta natura.
 - 2.1. Animaliei eta landareei buruzko zenbait ezagutzatara hurbiltzea.
 - 2.2. Animaliei, landareei eta beren habitatei buruzko jakin-mina, arreta eta errespetua, natura zaintzeko oinarrizko jarrerak direla eta.
 - 2.3. Naturako fenomenoari buruzko zenbait ezagutzatara hurbiltzea.
 - 2.4. Naturako fenomeno batzuek izaten ahal dituzten arriskuez ohartzea.
 - 2.5. Elementu geografikoei buruzko zenbait ezagutzatara hurbiltzea.
 3. Gizarte antolaketa.
 - 3.1. Familiari eta eskolari buruzko zenbait alderdi ezagutzen hastea.
 - 3.2. Eguneroko bizitzako jarduerak.
 - 3.3. Lanbideei buruzko zenbait ezagutzatara hurbiltzea.
 - 3.4. Ohiturak eta tradizioak ezagutu eta horietan parte hartzea.
 - 3.5. Talde hurbilenetakoen partaide izatearen sentimendua, eta besteekiko errespetua izatea eta besteak baloratzea.
 - 3.6. Haurren ingurunean izaten diren gertaerekiko interesa eta jakin-mina.

4. esparrua. Komunikazioa eta hizkuntza

Komunikazioaren eta hizkuntzaren esparruan honakoa sartzen da: komunikazioarekin lotuta hizkuntzak dituen funtzio eta erabileren

garapena eta, horrekin batera, jokabidea erregulatu eta planifikatzeko funtzioen garapenari hasiera ematea, hau da, tresna sinboliko bat erabiltzea komunikatzeko, errealitatea irudikatze eta norberaren ekintzak eta besteenak planifikatu eta gidatzeko.

Haurrak beren inguruko pertsonekin izaten dituzten afektuzko harremanen eta haiekin komunikatzeko beharraren eta nahiaren bidez iristen dira hizkuntzaren funtzio horietara. Era askotako egoeretan parte hartuz garatzen dute hizkuntza, ahozko mintzaira funtzio desberdinekin erabiliz betiere. Hizkuntzaren ikaskuntza inguru sozio-kulturalari eta erabilera sozialei lotuta dago hasiera-hasieratik.

Hizkuntzaz jabetzeko prozesuan, hurrek beren inguruan aditzen duten hizkuntza aktiboki eta pixkanaka bereganatzen dute, haren funtzionamendua proban jarritz, bai hitzen esanahiari dagokionez bai tonuaren, fonologiaren, morfologiaren eta sintaxiaren alderdiei dagokienez, ohiko mintzairarekin bat ez datozela edo solaskideek ez dietela ulertzen ohartuz gero zuzenketak eginez. Horregatik, hitz egitean egiten dituzten okerrak hizkuntza eratzeko prozesu aktiboaren adierazle gisa hartu behar dira. Hizkuntza, beraiantzat, egiten dutenaren zerbitzura dagoen tresna bat da, eta ez xede hutsa.

Ikastetxeak hurrei era askotako egoerak eskaini behar dizkie, interesatzen zaizkien gauzak hizkuntzaren bidez ulertu eta adierazteko, bai beraiek bezalako hurrekin aritzen direnean bai helduekin. Ohiko hezkuntza egoerek komunikazioko gaitasun guztiak garatzeko inguru ezin hobea ematen dute. Horietan, hurrek, hitzak eta egiturak ikasteaz gainera, keinuak, tonuak, solaskideekin aritzeko modua, zein egoeratan erabiltzen ahal den edo erabili behar den ere ikasiko dute, eta hezitzaileek hurrek bideratzeko baliabideak eskaini ditzakete, eta laguntza eman diezaiekete gaia ezartzeko, ideiak antolatzeke, behar den hitza bilatzeko, esandakoaz berriz hausnartzeko, gauzen azalpenerako modu desberdinak eskaintzeko, etab.

Garrantzitsua da helduak hurrekin komunikatzeko prest egotea, hurren komunikazio jarrerak ontzat eman eta bultzatzea, asmoak

eta esanahia ulertzeko ahalegina eginez, solasaldia norabide bakarrekoa izan ez dadin. Horretaz gainera, helduek hizkuntza eredu aberats, argi eta ongi egituratua eskainiko dute, bai eta ahozko testu mota desberdinak eta funtzio desberdinekoak ere, izan ere aditutako hizkuntzaren kalitatearen eta jasotako motibazioaren mende dago hizkuntza gaitasuna. Hori guztia bereziki beharrezkoa izanen da haurren familia-ingurunean ezin denean hizkuntza eredu konplexu, elaboratu eta zuzenik eskaini.

Hitzen aurreko baliabideak eta ahozko hizkuntza komunikaziorako funtsezko tresnak izan arren ziklo honetan, hizkuntza idatzirako bidea planifikatu behar da ikastetxean. Gurea bezalako gizarte alfabetatu batean hizkuntza idatzia nabarmen agertzen baita inguruan, haurrek ikusi egiten dute eta horren aurrean jakin-mina sortzen ahal zaie. Haurrei idazketaren funtzionalitateari buruzko ideia bat izateko esperientziak eskaini behar dizkietela pentsatu behar dute ikastetxeek; ideia bat izateko eta, agian, kode idatziaren ezaugarri batzuk bereizteko.

Atsedenearen eta esna-aldiaren, higienearen, pixoihalak aldatzearen, elikatzearen eta janztearen errutinak, bizitzako lehen urtean, komunikaziorako jarduera ezin hobeak dira, aurrez aurreko elkarrekintzarako eta hizpidea ematen duten objektuak sartzeko inguru egokiak baitira. Jolasa ere berdinen arteko komunikazioa bideratzeko eta hizkuntza arautzen duten funtzioak garatzeko jarduera egokienetako bat da; fikziozko eremu libreak sortzen ditu saioak egiteko, jarraibideak eman eta jasotzeko, beste baten papera hartzeko, ekintza antolatzeko, helburuak ezartzeko, etab.; azken batean, hizkuntza pentsamenduaren eragile gisa erabiltzen da eta, gainera, plazerezko eta jolaseko egoeran, zeinean haurrak beti baitaude parte hartzeko prest.

Ipuinak kontatzea eta liburu irudidunak batera irakurtzea oso egokia da ahozko hizkuntza bultzatzeko. Ipuinak beste gauza asko baino erakargarriagoak eta aberasgarriagoak dira haurrentzat eta pozik hartzen dituzte Ipuinen edukiak eta narrazio egitura oso interesgarriak dira hizkuntzaren alderdi asko lantzeko eta horretarako

aprobetxatu behar dira, inolaz ere ahaztu gabe haur literaturaren xedea entretenitzea, edertasun estetikoagatik plazera sortzea, fantasiara hurbiltzea eta hunkitzea dela. Ipuinak lagungarri dira gizakien arazo nagusiei eta horien konponbideei buruz asko ikasteko, emozioak argitzeko, zailtasunak, frustrazioak, gatazkak, etab, ikusi eta gainditzeko; eta hori guztia, fantasiako mundu batean, non arriskurik gabe joan daitekeen heldutasunerantz.

Edukiak

1. Komunikazioaren osagaiak.

- 1.1. Komunikazioaren osagai egokiak erabiltzea –keinuak, esamoldeak, hitzak, esaldiak, intonazioa, etab.– behar eta egoera desberdinak adierazteko, lortu nahi den helburuari, solaskideari eta inguruari ongi lotuta.
- 1.2. Era askotakoak eta geroz eta konplexuagoak diren egoeretan aktiboki parte hartzea.
- 1.3. Hizkuntzaren ahoskera pixkanaka ikastea.

2. Komunikazioaren formak.

- 2.1. Agurtu, beharrak eta egoerak adierazi, galderak egin, informazioa eman, deskribatu, konparazioak egin, azaldu, narratu, arrazoitu, argudiatu eta elkarrizketan aritzeko ohiko formak erabiltzea.
- 2.2. Helduen eta berdinen ahozko testuak ulertzea.
- 2.3. Helduekin eta berdinekin komunikatzeko egoeretan parte hartzeko interesa eta ekimena.

3. Ahozko testuak.

- 3.1. Ipuinak, abestiak, elkarrizketak, etab. entzun eta/edo begiratzean interesa agertu eta gozatzea.
- 3.2. Kontakizunen oinarritzko elementuak ulertzea.
- 3.3. Abestiak, elkarrizketak edo segida errazak, edo zatiak, buruz ikasi eta berriz esatea, eta abestietan, errezitatzeetan eta hala-koetan parte hartzea.
- 3.4. Dramatizazio baliabideak erabiltzea gauzak ulertu eta adierazteko.

4. Ahozko hizkuntza jarduera erregulatzeko.
 - 4.1. Hezitzailearen hitzezko jarraibideak berehalako jardueretarako gida gisa erabiltzea, bai eta ekintzako segida erregulatzeko ere.
 - 4.2. Norberaren hizkuntza jarduera konplexuak bideratu eta errazteko erabiltzea.

5. Hizkuntza idatziarekin hastea.
 - 5.1. Eguneroko bizitzako testu idatzien eta sinboloen esanahia behatu eta interesa agertza.
 - 5.2. Zenbait testu behatu eta horien helburuarekiko interesa agertza.

5. esparrua. Gorputz adierazpena, plastikoa eta musikakoa

Gorputz adierazpenaren, plastikoaren eta musikakoaren esparrua gizartearen ezaguera kultural eta artistikora hurbiltzeko bidea da, eta hurbiltze hori ludikoa izanen da eta saiakuntza eta ikerketa bidez eginen, haurrei behatu, sentitu, ezagutu eta jarduten erakutsiko zaie eta, hala, kultura artistikoaren maila askotako ekoizle bihurtuko dira. Esparru horretan, adierazpen artistikoaren zenbait teknika landu behar dira, eta zenbait jarrera garatu: helburuak lortzeko jarraitasuna, materialak eta tresnak erabiltzean arreta eta ordena, lanak geroz autonomia handiagoaz egitea, lan originala baloratzea eta zehaztasunez egindako lanarekiko gustua izatea.

Ekoizpen plastikoak, musikalak, dramatikoak eta gorputzaren bidezkoak beste kide batzuekin batera eta taldeen proiektu moduan egin daitezke, horrela taldelana, bizikidetza eta norberaren portaeraren kontrola eta erregulazioa bultzatuz, bai eta besteen lanekiko errespetua eta arreta ere.

Ziklo honetan elaborazioa eta ekoizpena bultzatuko dira bereziki, baina begiratzea ere landu beharko da, haurrak kultur eremu,

museo, liburutegi eta entzunaretoetako erabiltzaile eta arte agerpenen ikusle izateko heziz.

Hezitzaileek estimulu ugariko giroa sortuko dute, askatasun eta laguntza giroan norberaren lanak bultzatzeko, ekoizpen estereotipatuetara eramaten duten interferentziei aurre egiteko eta bakoitzaren erritmo eta berezitasunak errespetatzeko, horrela sentsibiltatea eta sormena garatzen lagunduz.

Esku-hartze horrek ikastetxearen giro estetikoaren ere landu behar du, haurraren edertasunarekiko eta artearekiko interesa eta gustua pizteko funtsezko erreferentzia baita. Giro hori sortzeko lagungarri izanen dira bai artista desberdinen eta estilo desberdinetako obrak, bai obra pertsonalak, helduek horiei buruz egiten duten balorazioa islatzeko moduan aurkeztuak.

Gorputz adierazpenak gorputzaren erabilera lantzen du, gorputzaren keinu, jarrera eta mugimenduak, plazer hutsez eta asmo estetiko zein komunikatibo batez eginak, gorputz adierazpen libreko jardueretan, jolasean edo dramatizazioetan. Jarduera horiek oso erakargarriak dira haurrentzat, beren arreta bildu eta zentratzen baitute, eta emozio, sentimendu edo ideiak adierazi eta ulertzeko laguntza ematen.

Musikak lotura estua du gorputz adierazpenarekin, haurrak musika sentitzen hasten baitira erritmoaren, mugimenduzko jolasen, dantzen eta abestien bidez. Musikako esperientziak giro ludiko batean gauzatu behar dira, era askotako soinu materiala erabiliz, banaka eta taldean manipulatu, entzunez, berreginez, sortuz, sentituz eta adieraziz.

Esperientzia plastikoak ikusizko arte agerpen guztiak hartu behar ditu kontuan: pintura, eskultura, arkitektura, argazkigintza, etab., eta haurren hautematea, inguruan duten guztia aztertu eta aukera guztiak probatzeko duten joera eta beren asmoei erantzutean duten sormena bultzatu behar du.

Edukiak:

1. Gorputz esperientzia.
 - 1.1. Gorputzak adierazi, komunikatu eta irudikatzekeo dituen ahalbideak ezagutu eta erabiltzea.
 - 1.2. Gorputza adierazpide gisa erabiltzekeo interesa eta sormena.
 - 1.3. Mugimendua eta dantza adierazpide gisa erabiltzea.
 - 1.4. Bakarka eta talde txikietan dramatizazioetan parte hartzea eta horrekin gozatzea.
 - 1.5. Gorputz adierazpeneko forma berezi eta sormenekikoei buruzkeo interesa.

2. Musikako esperientzia.
 - 2.1. Soinuaz eta isiltasunaz ohartu eta identifikatzea.
 - 2.2. Soinuaren oinarrizkeo ezaugarriez ohartu eta identifikatzea: intentsitatea, iraupena, etab.
 - 2.3. Erritmoak aditu, berregin eta sortzea.
 - 2.4. Musika tresnak erabiltzea musika lanei laguntzeko.
 - 2.5. Abestiak entzun, ezagutu eta errepikatzea.
 - 2.6. Musika lan desberdinak entzutea.
 - 2.7. Musika lanak eta beren egileak ezagutzeko interesa izatea eta haiekin gozatzea.
 - 2.8. Musikak sortzen dituen emozio egoerez ohartzea.

3. Esperientzia plastikoa.
 - 3.1. Elementu plastikeo batzuekin saiakuntzak egitea: keinu grafikeo, aztarna, kolorea, testura, etab.
 - 3.2. Teknika plastikeo desberdinak erabiltzea.
 - 3.3. Plastika lanak behatu eta interpretatzea.
 - 3.4. Plastika lanak eta ikusizkeoak sortu eta horiekin saiakuntzak egitekeo interesa eta plazera.
 - 3.5. Plastika lanak eta horien egileak ezagutzeko interesa eta jakin-mina.
 - 3.6. Lanak aurkeztean interesez eta arretaz jokatzeta.
 - 3.7. Haurrek beren lanak eta besteek baloratu eta errespetatzea.
 - 3.8. Irizpide estetikeo desberdinen araberrakeo giroak sortzen gozatzeta eta horretan parte hartzea.

